

Arieh Shoal-ekin elkarrizketan

HEBRAIERA, HILDAKO HIZKUNTZA BIRBIZTUA ETA GAUR NORMALDUA

Paulo Agirrebaltzategi

Arieh Shoal Tel Aviv-en jaio zen duela 62 bi urte. Orduantxe ezerezetik eraikitzen hasia zen hiri berria. Kultura eta Hezkuntzako Ministraritzako Zuzendari-ordea da, eta sail hauek ditu bere esku: kanpo-harremanak, UNESCOko ordezkari-tza, kanpoko titulu akademiko onartzea eta eskolako zuzendarien prestakuntza. Orain dela hamabi bat urte etorri zen Euskal Herria, hebraierari eta berorren birbizkundeari buruz hitzaldiak ematera.

Hainbat euskaldun ditu bere adiskide, baina...

Euskaldunon adiskidea

Herria-2000-Eliza: Adiskideak aparte, nik uste zu zeu euskaldunon, Euskal Herriaren lagun aldarrika zaitzakegula. Nondik datorkizu zure harremana euskaldunekin?

Arieh Shoal: Jakin ez dakit nork aipatu zuen nere izena, Franco hil ondoko berehalako garai hartan; gau batez Luis Iriondo adiskideak deitu ninduen, eta eskatu zidan ea prest ote nengoen Euskal Herriara joateko, hebraieraren birbizkundeaz mintzatzeko. Egia esan, nik ez nuen euskaldunen gauza handirik ezagutzen, egunkarietan irakurritakoaz gain; baina gaztetatik, gerra zibilean euskaldunek egindako borroka ezaguna zitzaidan, eta sinpatiaz ikusten nituen. Ez nekien, ordea, frankismoak halako kaltea eginga zionik euskaldunen hizkuntza nazionalari, euskarari. Donostian ezagutu nuen hori. Horra, bada, neure Euskal Herriarekiko lehen harreman hurbilekoa. Hala ere, lehenago, Argentinan bizi nintzanean, Buenos Airenen ezagutu nuen bertako unibertsitateko arkitekturako irakaslea zen **Ibarluzia**. Oso adiskide handiak bihurtu ginen. Beraren abizenak jakin-minenez nindukan, eta horretaz galdetzean, euskalduna zela argitu zidan. Euskararen eta hebraieraren historiaz mintzatu ginen. Gure hizkuntzaren birbizkundearen historia azaldu nionenan, harrিতuta gelditu zen.



H.2000-E.: Argentina ibilia zara, beraz. Zer dela eta?

A.S.: Argentina ikasi nuen nik gaztelania. Lehen aldikoz juduen hezkuntzaren ardura zuen erakundeetako batek bidali ninduen. Argentinan bada judu-eskolen sarea, estatuak ezagutua, eta hantxe lan egitera bidali ninduten. Bigarren aldian, 1961-1964 bitartean, mizio diplomatikoz joan nintzen, gure enbaxadako kultur alorreko laguntzaile gisa, aurreko egonalditik gaztelania ezagutzen nuen.

**"Ama-hizkuntza:
Haurrak amari irakasten diona"**

H.E.: Argentina ikasi duzu gaztelania. Judu-Herriaren eta Euskal Herriaren arteko harremanez mintzatzeko, berriz, gure hizkuntzei buruz mintzatzera garamatza. Zure ama-hizkuntza hebraiera duzu, ezta? Tel Aviv-en eta ez diasporan jaioa bait zara.

A.S.: Bai. Tel-Aviv-en jaioa nauzu. Ni txikia eta gaztea nintzela, artean kaleak zolatu gabe zeuden eta gaurko plaza nagusia hondarrezko unea besterik ez zen. Gerora hiri handi bihurtu da Tel Aviv. Berau da Israelgo kultur eta industri hiri nagusia.

Gure gurasoak, ordea, kanpotik, diasporatik etorri berriak ziren, ni jaio baino hiru urte lehenago, 1924ean. 1909 inguruan hasiak ziren judu etorkinak bertako hondar-muinoen gainean Tel-Aviv hiri berria eraikitzen. Gure gurasoek errusiera eta **yiddish** zituzten beren hizkuntzak. Beraz, neure ama-hizkuntza ez dut hebraiera. Eskolan ikasi nuen hebraiera, etan han ikasitakoa irakasten nien gurasoei.

H.E.: Judu-Herria bere hizkuntza hila birbiz-tera eta normaltzera iritsi da Israelen, hizkuntza ofizial, moderno eta nazional bihurtuz. Zure kultura eta hizkuntzako Ministraritzako ikuspegitik, zernolako garrantzia izan du eskolak hebraieraren birbizkunderan?

A.S.: Mende honen hasieran eskoletako irakasle eta maixuen lana izan zen eragilerik nagusia hebraieraren birbizkunderan. Gure artean gehien-gehienek ez zuten hebraiera beren ama-hizkuntza, gurasoek ez bait zekiten hebraieraz mintzaten. Eskolaren bidez ikasi behar zuten haurrek hebraiera, nik bezala. Horregatik esan ohi da, juduaren ama-hizkuntza dela, haurrak amagandik ikasten duena, haurrak amari irakasten diona baizik.

Horregatik 1910, 1912 urteetan eskolako irakasleek eginkizun historikoa, erabakiorra, bete zuten hebraieraren birbizkunderan edo berreskurapenean.

Hebraieraren alde greban

H.E.: Baina zernolako indarra eduki zezakeen orduan juduen eskolak Palestinan?

A.S.: Egia esan, garai hartan oso murrizta zen juduen populazioa Israelen, ekonomi aldetik oso ahula, diasporako judu-elkarteen laguntzaren premia gorrian. Horregatik ez zen inola ere erraza eskolaren egitekoa orduan. Garai hartan Ezra izeneko judu-erakundeak laguntzen zituen Israelgo judu-eskola ia denak. Laguntza esan nahi du hain zuzen, ezra hitzak; baina Ezra zeritzan, baita ere, juduak Babiloniako erbestealditik herriratu zituen gidari politikoari. Herriratzea eta laguntza, biak adierazten ditu, bada, juduentzat ezra hitzak.

H.E.: Baina Ezra erakundeak bazuen bere izen alemana ere: "*Hilfverein der Deutschen Juden*", oker ez banago; eta Palestinako babespeko eskoletan alemana sartu nahi zuen hizkuntza nagusitzat, ezta?

A.S.: Bai. Elkarte horrek behartu nahi zituen irakasleak alemana erabiltzera irakaskuntzan, alemana bait zen garai hartan mendebaldeko teknologia aurreratuenaren eta kulturazko adierazpen sofistikatuenen lekuko. Horregatik alemana uste zuten behar zela izan juduen etorkizuneko hizkuntza nazionala. Irakasleak horren aurka jarki ziren, eta Israelgo historia modernoko lehen greba aldarrikatu zuten, ez beren errebindikazio ekonomikoen alde, eta bai gure antzinako hizkuntzaren berreskurapenaren -birbizkunderen- prozesu historiko hori askatasunez abiatzeko.

H.E.: Birbizkunderen historiaren lehen 40 urteetan izan zen hori, Israel estatu eraiki aurretik. Ordutik hona "*Ulpanak*" eta "*Absortzio-etxeak*" daude, diasporatik etorri berriak diren helduei hebraiera irakasteko. Horien haurrak, berriz, eskolara doaz zuzenean, eta eskolan ikasten dute hebraiera. Nola ikusten du Ministraritzak neska-mutiko horien hizkuntzako integrazioa?



Hizkuntza ikastea, gizarteratzeko bidea

A.S.: Eskarmentu oso ona daukagu, aurrera eragiten diguna. Haur guzti horiek oso erraz ikasten dute hizkuntza berria, hebraiera, bere ama-hizkuntza erabat ezberdina izanik ere: eskumatik ezkerretara eta bokalik gabe idazten da hebraiera esate baterako. Hain erraz ikasten dute, ze ez dugu ikusten eskolan bereizi beharrik bertan jaiotako eta diasporatik etorritako haurrak. Egunerok bi orduz jartzen ditugu bereiz etorkinak, bereziki hebraiera irakasteko; baina gainerako hiru orduak besteekin batera daude, eta hizkuntza berria ikasten duten neurrian, klasean parte hartzen dute hebraieraz. Horrela gehienetan hiru hilabeteren buruan haur horiek eskolan erabat integratzeko eta iharduera guztietan parte hartzeko gauza izan ohi dira. Horretara iristen ez direnentzat ikastaro berezia antolatu ohi dugu arratsalde. Jakina, lehen ikastaroa zaila gertatzen zaie diasporatik etorritako haurrei; baina bigarren ikastaroa erabat integratzeko eta iharduera guztietan parte hartzeko gauza izan ohi dira. Horretara iristen ez direnentzat ikastaro berezia antolatu ohi dugu arratsalde. Jakina, lehen ikastaroa zaila gertatzen zaie diasporatik etorritako haurrei; baina bigarren ikastaroa erabat normala.

Hala ere, batxilergoko adinean diasporatik datozen neska-mutilei, beren azterketak hebraieraz egiteko izan dezaketen zailtasuna kontutan izanik, Hezkuntzako Ministraritzak baimena ematen die beraien ama-hizkuntzan egiteko. Orain arte 22 hizkuntzatan ditugu azterketa horiek. Esan behar da, urtetik urtera jaisten ari direla ez-hebraierazko egindako azterketak.

UNESCO eta hizkuntza gutxituak

H.E.: Goazen zure UNESCOko ordezkarietara. UNESCOri dagokio Herrien eta gizadiaren kulturazko ondasunak babestea; eta ondasun horien artean daude noski hizkuntzak. Zernolako ardura agertzen du UNESCOk hizkuntza gutxituen defentsarako?

A.S.: Zoritzarrez, azken 15 urteotan Batzarre orokor Txiki bihurturik egon da UNESCO, arazo politikoez eta ez kulturazko arduraturik. Horregatik, erakunde horren egitekoak horrebesteraino nahasten ari zirela eta, USAk eta GBk erakunde hori bertan behera uztea erabaki zuten.

Ez da, beraz, harritzeko, hizkuntza gutxituen berreskurapena ere jokabide politiko horien menpe erori izana. Esate baterako, Israelek UNESCOren laguntza eskatu zuen juduen bi hizkuntza tradizionalak -(yiddish eta ladinoa), beste hainbat hizkuntza minoritarioekin batera -horien artean euskara noski- suspertzeko eta zabaltzeko. Orain dela lau urte ipini genuen gure eskabidea; eta, tamalez, estatu arabiarrek aurka jarri ziren Israeldik zetorrelako ekimena

H.E.: Atzera gelditu zen, beraz, hizkuntza minoritario eta gutxituen aldeko mozioa?


A.S.: Zorionez, Holandako ordezkariak proposatu zigun, mozioa berak aurkeztea gure ordezkarietara, horrela ez bait ziren aurka jarriko estatu europarretako batek ipinitako mozioaren aurrean. Beraz, UNESCOk onartu egin zuen: hots, zenbait hizkuntza gutxi eta minoritarioen -euskararen, ladinoaren, yiddisharen, etab.en- berreskurapena sustatzea eta laguntzea.

H.E.: Nola zehaztuko dira sustaketa eta laguntza horiek, Europako hizkuntza gutxituei dagokienez?

A.S.: Bada Holandan erakunde bat, Frisiar akademia, alegia; berak hartuko du UNESCOren erabakia nola zehaztuko den ikusteko ardura; horretarako hizkuntzalarien eta hizkuntza gutxituen berreskurapen-prozesuan lanean dihardutenen arteko kongresu nazioartekoa antolatuko du, UNESCOren erabakia nola aurrerabideratuko eta gauzatuko den aztertzeko.

H.E.: Herrien arteko desberdintzapen-fenomenoak dira hizkuntzak, baina gizon-emakumeen arteko komunikazio-tresnak ere bai; eta, beraz, Herrien arteko bakerako izan behar luke dirudi. Hala ere, ezaguna da nolako gatazkak dauden hizkuntzen artean, edo hobeto, hizkuntza komunitate ezberdinen artean, hizkuntzen arteko konkurrentzia delako batetik, eta batez ere hizkuntza gainartzaileen eta hizkuntza azpiratu eta gutxituen artean, bestetik. Zein da UNESCOren jarrera gatazka horren aurrean?

A.S.: Bost hizkuntza dira UNESCOn ofizialak: ingelesa, frantsesa, arabiera, txinoa eta espainola. Horiek dira nagusienak munduan. Horregatik, erabaki politikoa izateaz gain, behar praktikoa ere bada hizkuntza nagusi gutxi batzuk ofizialtzat hartzea, nazioarteko batzarrea egitean denentzako komunikazio-baliabidea aurkitu behar denez. Gutxi izanda ere, hizkuntza ofizialok, horien arteko aldibereko itzulpena oso garestia da. Horregatik, nik parte hartu dudana kongresu askotan bi hizkuntza erabili izan dira: bertakoa eta ingelesa ala frantsesa. Baina gaur egun ingelesa bihurtu da mundu osoaren bigarren komunikazio-hizkuntza.



Hebraieraren Akademia, Jerusalemgo Unibertsitatearen kanpusean.

Hebraiera, hizkuntza birbiztua eta normaldua

H.E.: Hamalau milioi inguru dira juduak mundu osoan, ezta? Horietatik lau milioi eskas bizi dira Israelen; eta beste 10 milioi juduk ez daki hebraieraz: gutxiengo batek daki, beraz, hebraiera juduen artean, nahiz eta guztien hizkuntza nazionaltzat hartu eta Israel estatuko hizkuntza ofiziala izan. Lau milioko hiztunen hizkuntzak, estatu-hizkuntza ofizial izanda ere, ba ote dezake eduki luzarora "bizitza normalik"?

A.S.: Ez dago inolako zalantzarik horretan. Gaur egun bada israeldarrik, hebraiera duela 70 urte praktikan desagertua zegoela konturatu ere egiten ez denik. Hebraiera dute beren hizkuntza normala bizitza osoan. Hebraiera normalduta dago literaturan, poesian; irakazkuntzako hizkuntza dute ikasleek haurtzarotik Unibertsiteraino; zientzia zehatzetako eta gizarte-zientzietako hizkuntza normal bihurturik dago hebraiera. Inork ez du uste horretan buruhauste apartekorik dagoenik. Egunero bizirik dago hebraiera: hitz berriak sortu eta sartu egiten dira eguneroko erabilera, prentsaren, irratia, telebistaren, antzerkiaren eta literaturaren bidez. Gaur egun hebraierazko argotak sortzen dira: azokakoa, kalekoa... herriaren


beraren sormena. Agian hizkuntzalariak, hizkuntzaren garbitasunaren izenean, halako hitz edo forma arrotzaren aurka hartzen dira, baina erabiliaren indarrez hizkuntzaren seme legitimoa bihurtzen da.

H.E.: Guzti horrek hebraieraren bizitza normaldua adierazten du, bai. Baina beste aldetik galdetu nahi dizut. Gobernu guztièk daukate beren hizkuntz politika noski. Lau milioi hiztunen hizkuntzak ba al du normal bizi-zerik, beraren adierazpen kulturazko zutietan (literatura, antzerkia, komunikabideak, irakaskuntza, etab. etan), ba al du "normal" bizitzerik, laguntza ofizial espezifikoko eta berezirik gabe, hizkuntza "handiek" behar ez dituztenik gabe?.

A.S.: Hebraierak ez du gaur egun inolako euskarri ofizialik, beste edozein estatuko hizkuntza ofizialek ez duenik. Irakaskuntza osoan erabiltzen dugu, hori bai. Hebraiera erabat normaldua dago Israelen gaur. Orain dela 35 edo 40 urte, ni gaztea nintzelarik, hizkuntza asko mintzatzaren ziren Israelen, eta hebraiera arriskutan zegoen, *yiddish*-hiztunen inmigrazio masiboarekin, esate baterako. Horregatik kaletan eta, irakur zitezkeen hone-lako deiak: "*Hebraiar hori, mintza hebraieraz*". Orain dela hiru urte, Hezkuntzako eta Kulturako Ministraritzak, *yiddish*-aren eta ladinoaren irakaskuntza sartu du bigarren mailako eskolara, nahi dutenentzat. Horrela ofizialki bultzatzen du juduen bi hizkuntza: tradizional horien irakaskuntza, eta aukera ematen duten eskolei diruzko laguntza ematen die.

H.E.: Hitz batez, lau milioi eskas hiztuneko hizkuntza bizi eta gara daiteke modu normalez, estatuaren protekzionismorik gabe, behin egoera normaldura iritsi denean?

A.S.: Ez dut inolako zalantzarik. Editorialek ez dute hemen diru-laguntza berezirik, eta merkatu librean dihardute. Lau milioiko hiztunen Herri honetan asko dira editorialak, beren liburuak argitaratu eta salduz negozio normaldean bizi direnak.



Tel Aviv-en eraikitzaileen oroitarria. Hiriazen historiaren hiru faseak.

Independentziarik gabe hebraierarik ez

E.H.: Estaturik gabe lortuko ote zen hebraieraren normalkuntza?

A.S.: Oso zaila. Sionismoarekin batera, hau da Israel estatua sortzeako mugimenduarekin batera etorri zen hebraieraren berreskurapen-prozesua. Biak, estatua sortzea eta hizkuntzaren berreskurapena azkazala eta haragia bezala joan dira elkarrekin bat eginda. Prozesu politiko hori izan ez balitz, ezinezkoa izango zen hebraieraren berreskurapena. Errusiara (5 milioi judu) eta Poloniara (3 milioi) begiratu besterik ez dago; judu-eskolen sarea eta guzti, hebraiera ez zuten berreskuratu lurralde horietan; *yiddish* erabili dute bizitza normalean eta hebraiera otoi-tzean bakarrik, ulertu gabe gainera. Aberria berreskuratzeko eman zion hebraierari birbizteko aukera eta seaska. Ben Yehuda-ren ahalegin osoak, hebraieraren birbizkunderako, ez zukeen arrakastarik izango, Israelgo estaturik gabe. Herriaren identitatea definitzeko funts-funtsezkoa da hizkuntza nazionala.

Hebraiera, arabiera, ingelesa...

H.E.: Hebraiera arabierazko mundu handiak inguratuta dago. Etorkizunean arabierak garrantzia handiagoa izango duela dirudi munduko hizkuntza "handien" artean. Ez ote da hori hebraierarentzat mehatxua?

A.S.: Oraingo Israelen eta estatu arabiarren arteko egoera tragikoan irauten dugun bitartean, arabiera ez da inolako arriskurik. 650.000 lagun dira palestinar israel-darrak, arabiarrek, beraz; horietako ia denek ikasten dute oso ondo hebraiera. Horien arabiera ez da hebraierarentzat arriskutzat hartzen; eta lehen mailan derrigorrezkoa da arabiera ikastea Israelgo eskoletan; bigarren mailan aukerakoa; eta Israelgo unibertsitateetan arabieraren eta arabierazko kulturaren katedrak daude.

Bestalde, lurralde okupatuetakoko 80.000 langile sartzen dira egunero lanera Israelera. Guztiok ikasi ohi dute neurri ezberdinez hebraiera.

H.E.: Eta ingelesa? Horren presentzia eta indarra handia da Israelen. Ez al da hori hebraierarentzat arriskutzat ikusten etorkisunarako?

A.S.: Urrutira ez dago ikusterik. Gaur egun israeldarrek gogo handia dut eskolan ingelesa ikasteko. Ingelesa da, izan ere, gaur egun zientziaren eta teknologiaren kanalik garrantzikoena. Horixe da, bestalde, mundu osoko bigarren komunikazio-hizkuntza: hots, oso garrantzizkoa da komunikazio-hizkuntza den aldetik. Areago, Israelgo gobernuak era guztietan bultzatzen du ingelesaren eza-gutza. Irakaskuntzan batxilergoko bost azterketetako bat ingelesarena da; Unibertsitatara sartzeko ingelesaren azterketa egiten du ikasleak berriro, eta gutxienez zientziatzeko testua ulertzeko gauza izan behar du. Hitz batez, inori ez zaio bururatzen ingelesa hebraierarentzat arriskua denik gaur gaurkoz.